



Egun hartan, eskolako bidean nintzelarik, zirikatze gogoz etortzen zirela nabaritu nuen. Espaloiak garbituak ziren baina elur zaharra zen bazterretan, nahiz eta bi egun lehenago eroritako metro erdia ongi urtua izan. Ez zen ohikoa urriaren bukaeran halako elurtea botatzea. Mitxelko etortzen zen taldearen buru, metro eta 70 zentimetrotik gorako kankailua. Attor eta Iban gibeletik. Halako batean, "erasora" oihu egin zuen Mitxelkok, eta elur pilotak botatzen hasi zitzaizkidan, ezker-eskuin, errukirik gabe.

- Baina zertan ari zarete...? -erran nuen, bi besoekin burua babestuz.

- Isil zaitez, xaldabero -oihu egin zuen Ibanek, eta kolkotik behera sartu zidan beste elur pilota bat.

Lurrean utzi ninduten, trenpatua eta pilotakaden kolpez eta hotzez aurpegia gorrituta. Une horretan agertu zen Ainara, hura ere eskolara bidean. Arranguratu zen itxura hartan ikusi nindueanean:

- Baina, Ander, zer gertatu zaizu? -galdetu zuen, besotik heldu eta zutitzen laguntzen zidan bitartean.

- Zera, espaloian izotza zen eta erori egin naiz – erantzun nion, paltoko elur pindarrak astinduz.

- Erori? Ikusi al duzu zure burua, Ander? Aurpegia puztu-puztuta daukazu? Zer izan dira, Mitxelko eta hauek? - Alferrik zen, Ainara beti ohartzen zen, ezin nintzen harekin gezurretan ibili.

Lagunik onena nuen Ainara tiki-tikitatik. Neska azkarra zen, ausarta eta faltsukeriarik gabe.

Egun hartan eskolan denek galdetu zidaten: "Zer gertatu zaizu, Ander? Zer gertatu zaizu?".

Arropak lehortu arren elur lokaztuaren orbanak geratu zitzaizkidan, eta begi ondoan ubeldu batzuk agertu zitzaizkidan. Denei gezur bera kontatu nien, izotzetan erori nintzela. Kattalin irakasle berriari ere horixe erantzun nion galdera egin zidanean.

- Baina, Ander, zer gertatu zaizu aurpegian?

- Ezer ez, andereño, etxeko atarian izotza zen eta hankaz gora joan naiz. Kolpe ederra hartu dut!

- Esango nuke, bai errukitu zen -; baina ongi zara, ezta? Gurasoei deitzea nahi al duzu?

- Lasai, ez da beharrezkoa. Alferrik kezkatuko lirateke eta ez da ezer izan -geldiarazi nuen.

- Ados, nahi duzun bezala -eman zuen amore Kattalinek, eta matematikako kurtsoa hasi zuen. Zatikiak.

Attor, Mitxelko eta Iban elkarri kontuka sumatu nituen gibeletako lerroan, irri isilean. Jolas-orduan, Ainararekin nintzen eta atzetik hurbildu zitzaizkidan, mehatxuka. "Hara gure izotz-patinatzailea"...

- Portatu zara, xaldabero, ez zara salatari bat behintzat -bota zuen Attorrek.

- Hobe duzu, badakizu zer gertatzen zaien salatarietara eta... -bota zuen Mitxelkok.

- Zer gertatzen zaie? -oldartu zitzaaien Ainara.

- Zu isil zaitez, Urtain, hori ez da zure afera -erantzun zion Ibanek.



*Sasiolako errotaria*

Ramon Olasagasti Aiestaran

Erein argitaletxea

(IKASek moldatua)